

Inor, «euskarazko» Konstituzioan oinarriturik, bere eskubideak esijitzera ausartuko balitz, nolako problemak sortuko liratekeen asmatzea ez baita zaila.

Eta hauxe da gure erreflasio nagusia: Horrelakoa ote da Konstituzioan euskararentzat agintzen den ofizialtasuna? Noiz arte izango ote da euskara, itxurak bete eta demagogia merkea egiteko bakarririk serbitzen duen zerbait? Noiz arte iraungo ote du «Gainera, hori inork ez du irakurriko eta berdín zaio» kriterio horrek?

Eta bukatzeko, ez genuke aipatu gabe utzi nahi hainbat aldiz bururatu zaigun pentsakizun zitala: euskarak hainbeste eta hain kalitatezko defenditzaileak dituelarik, nola ez da altxa inoren aho-tsik *Madrileko Gobernuak* egindako irain honen aurka? Zeren eta, guretzat, argi baitago errudun nagusia, bakarra ez baldin bada ere, Estatua bera dela eta ez izerdi galantak bota ondoren itzulpen kaxkar hori burutu duen itzultzaile kaxkarra. Gailegoek egundoko protestak altxa dituzte gailegozko testuak zenbait erru gramatikal omen zituelako. «Euskarazko» testua irakurri ondoren protesta egiteko arrazoin faltaz ez gaude behintzat. ■ *Antton Elozegi* eta *Mikel Larraz*.

Espainiako Konstituzioa eta Euskaltzaindia

Espainiako Konstituzioaren itzulpena dela eta, makina bat bil kuratan eta ia periodiku guztietan, protestak entzun ditugu. Eta zoritxarrez, ez zaie arrazoirik falta, testua bera ikusita.

Arazo honen inguruan, bi puntu kritikatu dira batez ere: akats gramatikalak eta hankasartze teknikoak. Izan ere, akats gramatikalen horiek, elementalak eta ugari izanik, ez dira barkagarri. Bestalde, bistan da, honelako testu bat itzulgaitza dela, eta ez dela pertsona batek bakarrik egitekoa, hiztegi juridikoa egin gabe du gularik.

Baina bada hirugarren kritikagai bat, oso larria nere ustetan, eta batek baino gehiagok Euskaltzaindiaren aurka erabil lezakeena, eta erabiliko duena. Itzulpen honetan, Euskaltzaindia, nola edo hala, inplikaturik dago. Tamalez, Euskaltzaindiak lan hau zein neurritan ikusi eta onartu duen ez dakit. Dakidana da, ez dela holakorik lehendabiziko aldiz gertatzen. Euskaltzaindira laguntza eske jotzen duenak, garantia handiagoa behar du. Nere ustetan, itzulpen honen publikapenak, Euskaltzaindiaren funtzionaketaren ahulezia larri bat salatzen du, alegia, kalitatea neurtuko duen kontrolbideak falta direla. ■ *Kepa Etxeberria*.